

ERREF.: SLD

1058/2024 EBAZPENA, EKAINAREN 3KOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, LEHEN MAILAKO ARRETAKO IKERKUNTZARAKO LAGUNTZA METODOLOGIKOKO UNITATEAN DESTINOA IZANGO DUTEN FAMILIA ETA KOMUNITATEKO MEDIKUNTZAKO ATAL SANITARIOKO BURUAK HAUTATZEKO DEIALDIAN ONARTUTAKOEN ETA BAZTERTUTAKOEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ETA BALORAZIO BATZORDEAREN OSAERA ONARTZEN DITUENA.

#### AURREKARIAK

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 27ko 512/2024 Ebazpenaren bidez, Gipuzkoako Lehen Mailako Arretako Ikerkuntzarako Laguntza Metodologikoko Unitatean destinoa duen Familia eta Komunitateko Medikuntzako Osasun Ataleko buruaren lanpostua lehiaketa-sistemaren bidez betetzeko deialdia argitaratu zen (martxoaren 19ko EHAA, 57. zk. eta martxoaren 25eko BOE, 74. zk.).

Deialdian aurreikusitakoaren arabera, eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen da, deialdiaren ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan azkenekoz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori 2024ko maiatzaren 30ean amaitu zen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 8ko 950/2024 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Aurrekoa ikusita, ebazpen honen bidez argitara ematen da onartutako eta bazter utzitako behin betiko zerrenda, eta Balorazio Batzordea izendatzen da.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezartzen denez, onartutako eta baztertutako zerrendaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak behin betiko zerrenda onartzeko ebazpena emango du, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Ebazpen hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren web-orrian argitaratzeko aginduko du.

Era berean, balorazio-batzordearen izendapena argitaratu du.

Horregatik guztiagatik, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Estatutuak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikulua arabera (azaroaren 14ko EHAA, 219 zk.) indarrean dagoen legediak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez, honako hau

## EBAZTEN DUT


Lehenengoa. – Gipuzkoako Lehen Mailako Arretako Ikerkuntzarako Laguntza Metodologikoko Unitatean Familia eta Komunitateko Medikuntzako Osasun Ataleko buruaren lanpostua betetzeko deitutako lehiaketan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena. – Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)

Tercero. – Ebazpen hau Osakidetzako web orrian argitaratzea.

Laugarrena. – Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 3a



Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

## I. ERANSKINA

FAMILIA ETA KOMUNITATEKO MEDIKUNTZAKO OSASUN ATALEKO BURUAREN LANPOSTUA.

Onartutakoen behin betiko zerrenda:

- ROTAECHE DEL CAMPO RAFAEL (NAN\*\*\* 2815\*\*)

Baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda:

- EZ DAGO INOR.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 3a.

Baztertzeko arrazoiak:

- 1- Ez da finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian zerbitzu aktiboan ez egotea.
- 3- Ez du titulazioaren baldintza betetzen.
- 4- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 5- Beste batzuk.

## II. ERANSKINA

### FAMILIA ETA KOMUNITATEKO MEDIKUNTZAKO OSASUN ATALEKO BURUAREN LANPOSTUA

#### BALORAZIO BATZORDEA

##### Batzordeburua:

Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko zuzendariordea – Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusia – Susana Martín Benavides.

Ordezkoa: Kalitateko zuzendariordea - Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusia - Maribel Romo Soler.

##### Lehenengo bokala:

Arreta Integratuaren zuzendaria - Donostialdea ESI - Eider Uzkudun Lizaur.

Ordezkoa: Ospitaleko Atentzioa Koordinatzeko zuzendariordea – Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusia – Ana Bustinduy Bascaran.

##### Bigarren batzordekidea:

Arreta Integratuko zuzendaria - Barrualde-Galdakao ESI - Miren Edurne Martínez Ayuso.

Ordezkoa: Arabako ESiko zuzendariorde medikoa - Maria Ángeles Calvo Gainzarain.

##### Hirugarren bokala:

Fakultatibo Espezialista Familiako Medikua-LMT. - Tamara Pérez Sánchez - (IVAPek proposatua).

Ordezkoa: Fakultatibo Espezialista Familiako Medikua-LMT. - Nagore Zarraonaindia Ayo (HAEEK proposatua).

##### Idazkaria:

Hautaketa eta Horniketako zuzendariordea – Zuzendaritza Nagusia – Beatriz Guelbenzu Echeverria.

Ordezkoa: Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusia - Hornidura Zerbitzuko burua - Xabier Arauzo Uriarte.